

**BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA.** Kereila kriminala jarriko dio Eusko Jaurlaritzak Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Baltasar Garzoni. Batasunari buruzko autoetan prebarikazio delitua egitea leporatzen dio epaileari.

# Eusko Jaurlaritzak kereila kriminala aurkeztuko du Baltasar Garzonen aurka

Epailearen autoek bilera eta manifestazio eskubideak «murrizten» dituztela uste du EAeko Gobernuak



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Javier Balza EAeko Herrizaingo sailburua eta Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramailea, atzoko agerraldian.

## AZKARRAGAREN SALAKETA

### CGPJk ez du Azkarragaren salaketa onartu

Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburu Joseba Azkarragak Baltasar Garzon epailearen aurka aurkeztu zuen salaketa artxibatze erabakia hartu du CGPJ Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko Batzorde Iraunkorrek, aipatu Kontseiluko iturriek ezagutzera eman zuten.

Azkarragak hilaren 4an aurkeztu zuen aipatu salaketa CGPJren aurrean; Garzonek Batasunaren ekimenak bertan behera uzteko hartutako erabakiei buruz «bere iritzia emateko» eskatu zion Azkarragak erakunde judizialari. Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen jorkaerak «nahasmena eta alarma» sortzen duela azaldu zuen, eta CGPJri «epaileak modu zuzenean jardun dezaten ere arduratzea» eskatu zion.

Orain, Azkarragak igorritako ke-xuen oinarrian Garzonen erabaki judizialak daudela ikusi du CGPJko Batzorde Iraunkorrek, eta, beraz, horretan sartzeko esku-menik ez duela erabaki du. Sailburuaren salaketan Garzonek diziplina hausterik egin duelako zantzurik egonez gero, esku hartuko luke CGPJk, baina ez du horrelakorik ulertu kasu honetan.

suna judizialki galtzen ari direna irabaz dezaten» eragitea leporatu zion Lopezek Eusko Jaurlaritzari.

IUko koordinatzaile nagusi Gaspar Llamazaresek, berriz, Eusko Jaurlaritzaren ekimena ulertzen duela jakinarazi zuen, baina «IUk bi erakundeen arteko elkarrizketaren bitartez bideratutako irteera bat» nahiago lukeela gaineratu zuen.

## Erredakzioa | GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzak Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aurka kereila kriminala aurkeztea erabaki du. Kereila horren oinarria prebarikazio delitu bat da, Batasunaren jardueren etetea agintzen zuen autoaren ondorioz Garzonek hartutako erabakien kontrakoa. Hain justu ere, Eusko Jaurlaritzak uste du Garzon epaileak bilera eta manifestazio eskubideen inguruan hartutako erabakiak «indarrean dagoen araudiaren legez kontrako murrizketa» direla. Era berean, Jaurlaritzak uste du epailearen erabakiak Giza Eskubideen Europako Konbentzioak eskubideen murrizketei buruz dioenaren kontra doazela.

Hala jakinarazi zuen atzo Josu Jon Imaz EAeko Gobernu bozeramaileak, gobernu bileraren osteko prentsaurrekion. Jaurlaritzaren arabera, Garzonen autoak «bidegabeak dira, Jaurlaritzaren eskuduntzak gutxitzen dituzte, eta bilera eta manifestazio eskubideen murrizketaren hedapen bidega-

bea eta larria bultzatzen dute». Hori dela eta, Jaurlaritzak Espainiako Auzitegi Gorenko Bigarren salan aurkeztuko du epailearen aurkako kereila.

Imazek azaldu zuenez, Jaurlaritzaren ustetan oinarritako eskubideen urraketa «nabarmena da», eta «ohiko lege bideetatik at egiten ari da». Gainera, «gizarte demokratiko batean iritziz publiko aske bat eratzeko funtsezkoa den eskubide bat babesteko indarrean dauden bermeak» ez direla betetzen salatu du Gobernuak.

Horretaz gainera, Jaurlaritzak iritziz dio epaileak eragindako «segurtasun juridikorik ezak» Herrizaingo Sailari dagozkion eskumenak «edukirik gabe» uzten dituela. Baina hori baino «larriago» deritzo Batasunaren jardura eteten duen autoaren ondorioak «auzipe-tuak ez dauden eta alderdi horrekin zerikusirik ez duten pertsona eta taldeei zabaldu izanari». Ildo horretan salatzen du Garzonek delitua «gizarte osoari» egozten diola, soilik legez kanporatzea eta epailearen erabakiak gaitzesteagatik.

## MURRIZKETAK

**Garzonek dio bilera eta manifestazio eskubideen aurka hartutako erabakiak araudiaren legez kontrako murrizketa direla**

## AUTOAREN ONDORIOAK

**Jaurlaritzak salatu du autoaren ondorioak auzipetuak ez dauden eta Batasunarekin loturirik ez dutenei zabaldu izana**

## «Irudia garbitzeko erabakia»

Baltasar Garzonek atzo bertan hitz egin zuen kereilari buruz, Jaurlaritzaren erabakiaz ezin duela iritzirik eman adierazteko izan bazen ere.

Eusko Jaurlaritzaren ekimenak, baina, laster entzun zituen lehen kritikak. Horrela, Sozialista Abertzaleak taldeko legebiltzarkide Antton Morcillok

«irudia garbitzeko erabaki bat besterik ez» dela esan zuen.

Espainiako Gobernua, bestalde, kereilaren aurka azaldu zen, eta ildo horretatik mintzatu ziren Raxoi, Michavilla, Acebes, Arenas eta Rato ministroak. Raxoi presidenteordeak kereila «zentzugabea» dela eta Jaurlaritzaren ekimena «politikoa besterik ez» dela adierazi zuen.

PPk ere kontrako jarrera azaldu zuen. Bere idazkari nagusi Javier Arenasek Jaurlaritzaren erabakia «akats sakontzat» jo zuen; haren hitzetan, erakunde politikoak ez daude epaileen erabakiak «zuzentzeko».

PSOeko buruak ere ez datoz bat Jaurlaritzaren ekimenekin. Hala adierazi zuen alderdi horretako Askatasun Publikoen eta Autonomien Garapenerako idazkari Juan Fernando Lopez Aguilarrek, kereila «lekuz kanpo» baitago eta «kaltegarria» izango baita, haren aburuz.

PSE-EEko idazkari nagusi Patxi Lopezek kereilak sortu duen «egoera larria» aztertze-ko PSEko legebiltzarkideek bihar bilkura egingo dutela jakinarazi zuen. Bestalde, «ETA eta Bata-